

Emonez hartu egiten da eta.
Norberaren buruaz ahaztuz,
norbere burua aurkitu egiten da eta.
Barkatuz barkamena eskuratzen da eta.
Hilez betiko bizitzarako biztu egiten da eta.

2. GIDOIA - BEGIRATU ETA ADI EGON

Eleizbarrutiko bereizketaren helburua

Otoitz eta irekitasunezko giroan, antzeman daigun alkarregaz zelan **hitz egiten deuskun Jaungoikoak** bizi dogun garai honetan, zelan agertzera emoten jakun gizarteko eta Eleizako inguruabar honeetan eta **zelan erantzun deikeogun, hankak lurrean doguzala**, gure aukerak kontuan hartuta, bat egiteko dei horri.

Oharrak

- Orain **aztertu** egin nahi dogu gure ingurua, oraingoz gerorako proposamenik egin barik. Begiak zabalik, ikusi egin gura dogu ingurua eta norbere burua; entzun eta **alkarri entzun**. Ikusi dagigun zer garan eta zer ez garan.
- **Ekitaldiaren ibilbidea:**
 - Zuzendari edo moderatzaileak gogoratu egiten dau aurreko batzarrean landutakoa eta oraingoa zehazten dau.
 - *Evangelii gaudium* idazkitik hartutako atalen bat irakurri eta komentatu, labur bada ere.
 - Bakoitzak aurretiaz prestatutako erantzunak esan. Alkarri entzuteko momentua da.
 - Azalpenak. Ez da baloratzeko unea, azaldu eta entzutekoa baino.
 - Otoitza.
 - Entzundakoa batzea bakoitzak, isilune baten.
 - Ekitaldia ebaluatu.
 - Hurrengo gidoia, hirugarrena, emon.

Mahasti-sail bat erakutsi zeukun,
esanez: “Landu egizue”

Mahai huts bat erakutsi zeuskun,
esanez: “Ogiz bete egizue”.

Borroka-zelai batean jarri ginduzuzan,
esanez: “Bakea sortu egizue”.

Basamortura goizean goiz eroan ginduzuzan,
esanez: “Hiria eraiki egizue”.

Lanabesak eskuetan jarri zeuskuzan,
esanez: “Sorkuntza ordua dozue”.

Ebanjelioa S. Juanen liburutik

Jesusek ondo ezagutzen ditu bere lagunen mugak eta akatsak. Baina halan ere, bere konfiantza osoa jartzen dau euronan. Bialdu egiten ditu Barri Ona zabaltzera eta horrela fruitu emotera. Gaur ere, bialdu egiten gaitu. Horixe da gure poza. Hortik sortzen da gure esker ona.

Hauxe da nire agindua: maite daizuela elkar nik maite izan zaituedan lez. Ez deutse inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua hareen alde emoten dauanak baino. Zuek nire adiskide izango zaree, nik agintzen deusuedana egiten badozue. Aurrerantzean ez deusuet morroi deituko, morroiak ez dau nagusiaren asmoen barri jakiten eta. Zuei adiskide deitzen deusuet, neure

EVANGELII GAUDIUM IDAZKITIK

Abia gaitzen, irten gaitzen guztiei Jesu Kristoren bizitza eskaintzera. Eliza osoarentzat errepikatzen dut hemen, Buenos Airesko apaiz eta laikoentzat sarritan esandakoa: **nahiago dut kalera irteteagatik kolpatua, zauritua eta zikindua dagoen Eliza, itxita eta bere ziurtasunetan lotua egoteagatik gaixotuta dagoen Eliza bat baino.** (...) Zerbaitek era onean kezkatu behar bagaitu eta gure kontientzia arduratu behar badu, horrek zera izan behar du: gure hainbat senide Jesu Kristorekiko adiskidetasunak dakarren indarririk, argirik eta kontsolamenturik gabe bizitzea, eutsiko dien fede elkarre bat gabe, zentzuzko eta bizitzazko etorkizunik gabe (49).

Elizan lanean diharduten guztiekiko esker on handia sentitzen dut. Ez dut luzatu nahi orain pastoralgile ezberdinen jarduerak azaltzen, gotzainengandik hasi eta eliz zerbitzu apal eta ezezaguneraino. (...) Baina **lehenik esan behar dut, egiari zor, Elizak munduari egiten dion ekarpena izaugarria dela.** Elizako kide batzuen bekatuengatik —baita geurengatik ere— sentitzen dugun minak eta lotsak, ez digu ahaztuarazi behar zenbat kristauak ematen duten bizia maitasunez: hala-moduzko ospitaleetansendatzen edo hiltzen laguntzen diote jende askori, edo lurralde behartsuenetan hainbat mendetasunek esklabo bihurtutako jendeari laguntzen diete, edo haur eta gazteen heziketan dena ematen dute, edo guztiok albora utzitako zaharrak zaintzen dituzte, edo giro ezkorretan balioak komunikatzen saiatzen dira, edo era askotara eskaintzen dute bere burua Jainko gizon eginak agertu digun gizadiarekiko maitasun neurrigabearen adierazle. Eskertzen dut bere bizitza eta denbora alaitasu-

Itaunak

*Erantzunak prestatzen laguntzeko, Eleizbarrutiko V. Ebanjelizatze Egitasmoan agertzen dan **testuingurua** erabili daiteke, tokian tokiko egoerara egokitzen ahaleginduz.*

1. Nortzuk gara?

Esan zelan ikusten dogun gure kristau alkartea: nortzuk osotzen daben, zelango lotura daben, zein dan bere historia azken urteotan, bere asmoak eta akatsak, bere poz eta atsekabeak, bere itxaropenak eta ahalmenak...

2. Zelan gagoz?

Sakoneko begiradak jarrerak ikusten lagunduko deusku, gure harremanak aztertzen, gure ilusioak eta itxaropenak zehazten, inguruko giroa argitzen.

3. Norengana jotzen dogu?

Azaldu zelangoak diran gure inguruko gizon-emakumeak, eurongana jo nahi dogu eta: euren ardurak, pozak, izaerak eta pentsaerak, bizimodua. Era berean, norekin ez daukagun harremanik ere ikusi daitekegu.

4. Zelan ikusten dogu etorkizuna?

Zeintzuk dira fedea bizitzeko eta zabaltzeko ikusten ditugun eragozpenak, zertan gabilta lehen baino hobeto, zerk pozten eta arduratzen gaitu batez ere...

Aitak jakinarazotako guztie adierazo deutseute eta. Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zinduezadazan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau emon deusuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra emon daizuela. Nire izenean Aitari eskatuko deusazuen guztia, emon egingo deusue. Hauxe agintzen deusuet: maite dagizuela elkar.

JAUNAK ESANA

(Isilunea, Jaunak esana onartzeko eta gero, behar bada, komentatzeko)

Otoitza (danon artean)

Jauna, egin nagizu zure bakearen zerbitzari.

Gorrotoa dan lekuan, maitasuna jarri dagidala.
Iraina dan lekuan, barkamena jarri dagidala.
Liskarra dan lekuan, batasuna jarri dagidala.
Errakuntza dan lekuan, egia jarri dagidala.

Zalantza dan lekuan, sinesmena jarri dagidala.
Itxaropenik ez dagoan lekuan, itxaropena jarri dagidala.
Iluntasuna dan lekuan, argia jarri dagidala.
Tristura dan lekuan, alaitasuna jarri dagidala.

Egizu ez dagidala bilatu horrenbeste kontsolatua izatea, kontsolatzea baino, ulertua izatea, besteak ulertzea baino, maitatua izatea, maitatzea baino.

nez eskaintzen duten hainbeste kristauek ematen didaten eredu ederra. **On asko egiten dit testigantza horrek eta neurekoikeria garaiturik besteei eskainiago bizitzeko dudan gogoan eusten nau (76).**

Kultura mediatikoak eta zenbait giro intelektualek, Elizaren mezuarekiko mesfidantza nabaria eta halako haus-tura transmititzen dituzte. Ondorio bezala, otoitz egin arren, **bere kristau-nortasuna erlatibizatzeraz edo ezkutatzera daramatzen gutxiagotasun uste bat bizi dute pastoralgile askok.** Etengabeko soka luzatzen da orduan, **horrela ez baitira zoriontsu direnarekin edo egiten dutenarekin** eta ez baitira identifikatuak sentitzen ebanjelizatze misioarekin; eta horrek guztiak ahuldu egiten du eskaintza (79).

Gaur zaildu egin da, adibidez, parrokiatarako prestatuta dauden katekistak lortzea eta beraien eginkizunean urte luzez irautea. Baina antzeko zerbait gertatzen da apai-zekin, itsu-itsu zaintzen baitute beraien denbora pertsonala. Hau, askotan pertsonak duten autonomia esparruak zaindu beharrak sortzen du, **zeregin ebanjelizatzailea pozoin arrikutsu bat balitz bezala eta ez misiora deitzen eta erabateko eta emankor egiten gaituen Jainkoaren maitasunari emandako pozezko erantzun bat (81).**

Arazoa ez da beti jarduera gehiegi edukitzea, motibazio egokirik eta egintzak desiragarri egingo dituen barne-bizitzarik gabe gaizki bizi diren jarduerak baizik. Hortik, eginkizunek behar baino gehiago nekatzea eta batzuetan gaixoaraztea. Ez da neke zoriontsu bat, tirabiratsua, asetzen ez duena eta azken finean, onartua ez dena baizik. Adoregabetasun pastoral honek abia-

puntu ezberdinak izan ditzake. Batzuk horretan erortzen dira, proiektu gauzaezinei eusteagatik eta egin ahal zezaketena gogoz ez egiteagatik. Beste batzuk, gauzak egitearen nekea onartu ez eta dena bere kaxa gertatzea nahi izateagatik. Beste batzuk, bere harrokeriaz irudikatutako proiektuetara nahiz arrakasta-ametsetara lotzeagatik. Beste batzuk herriarekin benetako harremana galdu eta pastoraltzaren pertsonalizazio-ezak antolakuntzaz pertsonaz baino gehiago kezkarazten dituelako, eta orduan gehiago gogo-berotzen ditu «ibilbide-orriak», bideak berak baino. Itxaroten ez dakitelako adoregabetzen dira beste batzuk, eta bizitzaren erritmoa menperatu nahi dutelako. Gaur egungo berehalako irrikak kontraesanak, itxurazko porrota, kritika bat edo gurutze bat ez onartzera daramatza pastoralgileak (82).

OTOITZERAKO PROPOSAMENA

Sarrera

Bihotza zabalik dogula, Jainkoaren Espirituak gaur eta hemen egiten deuskuzan deiak entzun eta aztertu ditugu guztion artean. Berak bialduak gara, eta horrek poztu egiten gaitu. Esker ona sortuazoten dau guregan. Orain, otoitzean hasi baino lehenago, isilune batez prestatu gaitzan eta jarri daigun gure gaurko eguna Jaunaren eskuetan.

Goratarrea

Zure ahalmenak dau gizakiaren lana emankor egiten; eta gizakiaren eskuek dabe zure lana egunez egun osatzen.